**Azalpen txostena, Gizarte Politikako Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei eta haiek prestatzean erabilitako irizpideei buruz.**

Gizarte Politikako Departamentuaren 2018ko Kudeaketa Aurrekontu proiektua 376.924.735€ eurokoa da, eta, 2017ko hasierako aurrekontuarekin alderatuta, hazkundea 13.295.584€ eurokoa izan da, hain zuzen ere, % 3,66koa.

Proiektu hori prestatzeko, 2017ko aurrekontuekin alderatuta, alderdi esanguratsuenak izan dira 2017an sortutako plazen gastua urtekotzea, adinekoentzako egoitzen eta eguneko zentroen hitzarmena ezartzea eta gizarte esku-hartzeko hitzarmena ezartzea, Departamentuaren eskumen esparruko sektoreetan plaza berriak sortzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2016-2019ko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa ezartzea.

a.- 2017an sortutako plazen gastua urtekotzea.

2017an plaza berriak sortu dira hainbat sektoretan:

- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako egoitza plazak, profil psikogeriatrikoko plazak barne.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako eta buru nahaste larria duten pertsonentzako etxebizitzetako plazak.

- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroetako plazak.

- Desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroetako plazak.

- Egoitza plazak eta eguneko zentroak gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonentzat.

2017. urtean ireki diren plaza horiek, jarduera urte oso bati dagokionez, gastu gehigarri bat dakarte 2018an.

b.- Bigarren mailako gizarte zerbitzuetako plaza berriak sortzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2016-2019ko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa ezartzeko, eta Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa onartzen den artean, aurrekontu proiektuan aurreikusi da plaza

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Políticas Sociales respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El proyecto del Presupuesto de Gestión del Departamento de Políticas Sociales para 2018 asciende a 376.924.735€, lo que supone un incremento sobre el presupuesto inicial de 2017 de 13.295.584€, es decir, el 3,66%.

Para la elaboración de este proyecto se han incluido como aspectos más significativos respecto al presupuesto 2017 la anualización del gasto de las plazas creadas en 2017, la aplicación del convenio de residencias y centros de día para personas mayores y del convenio de intervención social, la creación de nuevas plazas en los sectores del ámbito de competencia del Departamento, así como la aplicación del Plan Estratégico de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2016-2019.

a.- Anualización del gasto de las plazas creadas en 2017.

En 2017 se han creado nuevas plazas en diversos sectores:

- Plazas residenciales para personas mayores dependientes, incluidas plazas de perfil psicogeriátrico.

- Plazas en viviendas para personas con discapacidad y personas con trastorno mental severo.

- Plazas en centros de día para personas mayores dependientes.

- Plazas en centros de día para personas con discapacidad.

- Plazas residenciales y de centro de día para personas en riesgo de exclusión social.

Estas plazas, que se han abierto a lo largo del ejercicio 2017 suponen, referido a un año completo de actividad, un gasto adicional en 2018.

b.- Creación de nuevas plazas en servicios sociales de atención secundaria.

En aplicación de lo previsto en el Plan Estratégico de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2016-2019 y hasta tanto se apruebe el nuevo Mapa de Servicios Sociales de Guipúzcoa,

berriak sortzea hainbat zerbitzutako itxaron zerrendak murrizteko. Orobat aurreikusi da ez egonkortutzat jotzen diren zerbitzuak mailaka finkatzea (berriak edo gutxi garatuak). Horrela, 2018an eguneko arretako 37 plaza zabaltzea aurreikusten da, baita gaueko arretako 6 plaza eta egoitza izaerako 115 plaza ere Departamentuaren jardueraren esparru osoan.

se ha contemplado en el proyecto de presupuestos la creación de nuevas plazas para reducir la lista de espera existente en diversos servicios, así como la progresiva consolidación de servicios considerados no estabilizados (nuevos o escasamente desarrollados). Así, está prevista la apertura en 2018 de 37 plazas de atención diurna, 6 plazas de atención nocturna y 115 plazas de carácter residencial en el conjunto del ámbito de actividad del Departamento.

c.- Adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroetako hitzarmena eta gizarte esku-hartzeko hitzarmena ezartzea.

c.- Aplicación del convenio de residencias y centros de día para personas mayores y del convenio de intervención social.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartu ditu, enpresa elkarteen eta sindikatuen aurrean, Gipuzkoako adineko pertsonentzako egoitzetako hitzarmen kolektiboa eta gizarte esku hartze hitzarmena berritzea, eta irabazteko asmoa duten eta irabazi asmorik gabeko entitateei zerbitzuetako langileen eskubideak hobetzeko nahikoa finantzazioa bermatzeko konpromisoa. Horretarako, 2018ko aurrekontu proiektuan tarifak eta prezioak hitzarmenetara eta entitate lankideekin sinatutako kontratuetara eguneratzeko behar diren baliabideak sartu ditu; orobat horiei gehitu die lan hitzarmen horien inpaktu ekonomikoa, Gizarte Politikako Departamentuaren aurrekontuetan dagoen aurrekontu eskuragarritasunaren mugarekin.

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha asumido, ante las asociaciones empresariales y las centrales sindicales, la renovación tanto del convenio colectivo de residencias para personas mayores de Gipuzkoa como del convenio de intervención social, así como su compromiso para garantizar a las entidades, con y sin ánimo de lucro, la financiación suficiente para mejorar los derechos de las personas trabajadoras de los servicios. Para ello se han incluido en el proyecto de presupuestos de 2018 los recursos necesarios para la actualización de las tarifas y precios de aplicación a los convenios y contratos suscritos con las entidades colaboradoras, incorporando en las mismas el impacto económico de los convenios laborales señalados, con el límite de la disponibilidad presupuestaria existente en el presupuesto de gastos del Departamento de Políticas Sociales.

d.- Sendian programak sendotzea, adingabeen arreta goiztiarra eta familia harrera.

d.- Refuerzo de los programas Sendian, atención temprana y acogimiento familiar a menores.

e.- Elkar-EKIN Plana zabaltzea, gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea errazteko.

e.- Despliegue del Plan Elkar-EKIN para favorecer la inserción social de personas en riesgo de exclusión social.

Aurrekontuen proiektuan sartu dira 2018. urtean zehar aipatutako planean jasotako jarduerak sustatzeko behar diren baliabideak; hauek dira, besteak beste:

Se han incluido en el proyecto de presupuesto los recursos necesarios para impulsar en 2018 actividades contempladas en dicho Plan, entre otras, las siguientes:

Hitzarmenen eta gizarte entitateekin sinatuta dauden kontratuen mailakako egokitzapena gizarte bazterketak dakartzan beharrei erantzuteko (ostatuak, eguneko zentroak eta gaueko zentroak).

Adaptación paulatina de los convenios y de los contratos actuales con las entidades sociales para atender las necesidades derivadas de la exclusión social (alojamientos, centros de día y de noche).

Proiektu integral bat egitea gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko.

Proyecto integral para la inserción social y laboral de personas en riesgo de exclusión social.

Kudeaketa entitateekin batera gizarteratzeko prozesuen kudeaketa garatzeko proiektuak sustatzea.

Impulso a proyectos para desarrollar en colaboración con las entidades la gestión de los procesos de inclusión social.

Gizarteratzeari atxikitako zerbitzu eta programa estrukturalak.

Gizarteratzeko banakako prozesuei lotutako diru laguntzak ematea.

Inklusio sozio-laboralari laguntzeko programak indartzea: ekintza positiboak prestakuntzan eta enplegagarritasunaren sustapenean.

Babesgabeziari eta bazterketari arreta emateko prebentziozko programak.

Prestakuntza, ikerketa eta praktika onen kudeaketaren programak indartzea gizarte bazterketaren kontzeptualizazioaren eta esku-hartzearen inguruan.

f.- Bestetik, beste diru laguntza batzuk aurreikusten dira gizarte ekimenerako eta baita mendekotasuna duten pertsonentzako ere laguntza produktuak erosteko.

g.- Ikerkuntza eta berrikuntza arloan Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat udalerritan Etxean Bizi eta Gazteon Sarelan proiektuei lotuta dauden hainbat esperientzia abian jartzeko finantzazioa aurreikusten da.

h.- Azkenik, adierazi behar da “Foru Erakunde Publikoen Kudeaketa” 400 programan, 2018an beharko diren kreditu gehigarriak esleitu direla, hartara “Kabia” foru erakunde autonomoak bere gain hartuko dituen adineko mendekoentzako udal jabetzako egoitzetatik datozen gastuak finantzatzeko, honi jarraikiz: Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2016ko urriaren 11ko erabakia, zeinaren bidez onartzen baita udal egoitzak Kabian sartzeko prozesuari buruzko txosten nagusia: adostutako modeloa, egutegi proposamena eta plan ekonomikoa.

i.- Azkenik azpimarratu behar da ezen, onartutako aurreikuspenak kontuan hartuta, Diru sarrerak bermatzeko eta etxeko laguntza zerbitzuari lotutako partiden zenbatekoak birdoitu direla.

Servicios y programas estructurales vinculados a la inclusión social.

Ayudas económicas vinculadas a procesos individuales de inclusión.

Refuerzo de los programas de apoyo a la inclusión socio-laboral: Acciones positivas en formación y fomento de la empleabilidad.

Programas preventivos de atención a la desprotección y exclusión.

Impulso a programas de formación, investigación y gestión de buenas prácticas en relación a la conceptualización y abordaje de la exclusión social.

f.- Por otro lado, se prevé el refuerzo de las ayudas económicas a la iniciativa social, así como las destinadas a la adquisición de productos de apoyo para personas dependientes.

g.- En materia de investigación e innovación se prevé la financiación para la puesta en marcha en diversos municipios del THG de experiencias piloto vinculadas con los proyectos Etxean Bizi y Gazteon Sarelan.

h.- En el programa 400 “Gestión de Organismos Públicos Forales” se han consignado los créditos adicionales necesarios en 2018 para la financiación de los gastos derivados de la asunción por el Organismo Autónomo Foral Kabia de la gestión de las residencias para personas mayores dependientes de titularidad municipal que se incorporarán durante el ejercicio 2018, conforme a lo previsto en el acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión de 11 de octubre de 2016, por el que aprobó el informe general relativo al proceso de convergencia de las residencias municipales en Kabia: modelo acordado, propuesta de calendario y plan económico.

i.- Destacar por último, que, de acuerdo con las previsiones aprobadas, se ha procedido a reajustar los importes de las partidas vinculadas a la Ayuda de Garantía de Ingresos y al Servicio de Ayuda a Domicilio.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



08 Departamentua GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA/
Departamento 08 DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak / Programas | LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK 3 GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK 4 TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5 CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK 6 INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER. 7 TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK 8 ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK 9 PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Gizarte Politikako Zerbitzu Orokorrak/ Servicios Generales de Políticas Sociales | 1.199,54 | 792,38 | | 1.988,75 | | | | | | 3.980,67 |
| 10. Desgaituen laguntza/ Atención a personas con discapacidad | 1.902,89 | 5.079,75 | | 38.161,54 | | | | | | 45.144,19 |
| 11. Adinekoen laguntza/ Atención a personas mayores | 1.170,14 | 21.993,17 | | 94.258,56 | | | | | | 117.421,87 |
| 20. Plangintza eta informazio sistemak/ Planificación y sistemas de información | 1.035,23 | 8,73 | | 303,09 | | | | | | 1.347,05 |
| 21. Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana/ Plan de inversiones y cooperación social | 940,40 | 5,00 | | 1.230,00 | | 6.911,21 | 5.262,41 | | | 14.349,02 |
| 22. Aldizkako prestazio ekonomikoak/ Prestaciones económicas periódicas | 1.326,00 | | | 73.874,48 | | | | | | 75.200,48 |
| 30. Gizarteratzea eta indarkeria matxistaren emakume bi Protección a la Mujer Víctima de Violencia Machist | 1.284,85 | 2.792,58 | | 25.259,30 | | | | | | 29.336,73 |
| 31. Haur eta nerabeen babesa/ Protección a la infancia y la adolescencia | 1.680,04 | 30.524,85 | | 14.127,73 | | | | | | 46.332,62 |
| 40. Foru Erakunde Publikoak Kudeaketa/ Gestión de Organismos Públicos Forales | 3.742,88 | 5.364,05 | | 35.248,94 | | | 1.445,00 | | | 45.800,86 |
| **Departamentua Guztira Total Departamento** | **14.281,97** | **66.560,50** | | **284.452,39** | | **6.911,21** | **6.707,41** | | | **378.913,48** |

